



## ELKARREKIN LOR DEZAKEGU

Galtzen goaz, modu geldiezinean, gizarteko zenbait estamentuk gogoz eta lanez urteetan konkistatu dituzten gizarte abantailak.

Europak ezarritako baldintza ekonomikoek, gure gizarte eredua hausten dituzte eta, gainera, talde ahulenek gehiago jasan dute krisiaren eragina.

Osasun arloko murrizketek, azken urte hauetan lortutako aurrerapenekin amaituko dutela mehatxatu dute, lortutako eskubideak zalantzan jartzen baitituzte.

Gobernuak ezin du "odoljarioa" gelditu eta, gainera, horri laguntzen dio egunero-egunero edozein murrizketa areagotzen baitu.

Eta ez dago aditurik egoera hori noiz amaituko den esateko gai, edo gure gizarte lehengoratzeko neurriak proposatzeko gai.

Gure taldeak, gizartearen arloari dagokionez, zein osasun arloari dagokionez - gainera, lanpostua lortzeko zailtasunak direla-eta - ikusi egin du murrizteko artaziek zalantzan jarri dutela

banaka zein talde moduan bizirauteko aukera.

*Gure antolatze moduari eta lanari esker  
baino ezingo dugu aurrera egin.*

*Behar zaitugu*

# FEVAPAS-EN PROGRAMA 2012. URTERAKO

## GIZARTERATZEKO JARDUERAK Aisialdirako hezkuntza programak/ Euskadin entzuteko

desgaitasuna duten hurrei eta gazteei zuzenduta. Aurten:

\* Maiatzaren 18tik 20ra entzuteko desgaitasuna duten eta entzuten duten 33 neska-mutilek parte hartu zuten Morgan (Bizkaian) egindako jarduera eta dinamiketan.

\* Ekainaren 26tik 29ra 16 gazte gor Zuhatzako Irlan bildu ziren aisialdiko jarduerak elkarrekin egiteko eta bizitzako esperientziak ezagutarazteko.

\* Uztailako 10 egun, 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutillak (gor zein entzuten dutenak) Grañonen (Errioxan) izan ziren mota askotako jarduera, tailer eta jolas egiten. Federazioko gazteen taldearen eta Bielorrusiako 15 gorren bisita izan zuten. Aurten ere, esperientzia ona eta polita izan zen



**BOLUNTARIOAK—Monitoreak.** Jarduera horiek guztiak ezingo genituzke egin elkarte federatueta eta Fevapasen ditugun monitore boluntarioen lanagatik eta lankidetzagatik ez balitz.

***ADIMEN EMOZIONALA***, monitoreak Trebatzeko Hezkide Eskolako lokaletan (Donostiako antzinakoan) egindako ikastaroaren izena da. Ikastaro hori azaroaren 24an burutu zen.

14 pertsonak (entzun dezaketenak zein entzuteko desgaitasuna dutenak) parte hartu zuten.

Hezkide Eskolako profesional batek ikastaroa eman zuen eta Zeinu-mintzairako interprete bik ikastaroa zeinu-mintzairan interpretatu zuten.



**FAMILIA PROGRAMA.** Aurten ere Fevapasek Elkarte Federatuak koordinatu ditu, familiei arreta egiteko eta laguntzeko lana batera egiteko.

Senideen eta desgaitasuna dutenen **BIZI KALITATEA HOBETZEKO HELBURUAREKIN**, ondoko lan koordinatua egin da: - Orientazioa eta Informazio eguneratu, zuzen, zabal eta zehatza eman. - Laguntza psikologiko eta emozionala eman eta, - Familiei informazioa eta prestakuntza eskaini.

**Hori guztia ondokoen bidez:** - Arreta zuzena eta kasu bakoitzaren jarraipena eginez - Banakako eskaintzak kudeatuz - Gurasoetatik gurasoenganako laguntza emanez - Hausnarketarako eta prestakuntzarako taldeen bidez - Laguntza psikologikoaren bidez - Familien arteko topaketak eginez Gizarteratzeko jarduerak eginez - Aldizka profesionalekin koordinatuz (otorrinologologoak, audioprotesistak, logopedak, hezitzaileak, etab.) - Informatzeko eta prestatzeko hitzaldiak antolatuz - Sentsibilizatzeko jarduerak burutuz, etab.ez.



# Fevapas INFORMAZIOA

## INPLANTE KOKLEARRA



### Prozesadoreak konpontzeko beste prozedura bat

Uztailaren 16tik, GAESek, alde batez inplante koklearra duten erabiltzaileen prozesadoreak konpontzeko kudeaketaren eredu aldaketa erabaki du (ez dakigu beste marka batzuk gain hartzen dituen edo ez).

\* Prozesadoreak BERMEAREN aldian badago, beste bat emango dizute

\* Prozesadorearen bermearen aldia amaitu bada, konponketaren prezioa kalkulatu dute (400 eta 600 euro bitartean) eta kopuru hori onartu ondoren (sinatuz), konpondutako beste ordezkatzeko prozesadore bat emango dizute.

Gaes-eko dendetan erabiltzaileei agiri bat emango diote eta agiri horretan aberiaren arrazoia jasoko da eta baita konponketaren zenbatekoa ere. Erabiltzaileak orri hori sinatzen duenean, aurrekontuaz gain, prozesadore horren ordezkari konpondu duten beste bat emango diotela ere onartu du. Prozedura horrek kezkatzen gaitu, batez ere, ondoko alderdi hauengatik:

\* Prozedurak alde bakarrez erabaki direlako

\* Jatorrizko prozesadorearen trazabilitatearen eta kontrolaren galera lehenengo 7 urtez

**Eta Fevapasek bere buruari ondokoa galdetu dio:**

Aldaketen alde bakarrez erabaki horiek, indarreko arauak eta legeak aintzat hartu gabe eta erabiltzaileei galdetu gabe EZARTZEKO modu hori zilegi eta etikoa al da

(fabrikatzaileen markek ezartzen dute)? Esan baitute erabiltzaileak asko

errespetatzen dituztela eta aintzat hartzen dituztela.

Berriz ez ote dituzte haien aldeko irizpideak aplikatu?



## ARARTEKOREN MAPAK



Mapak egiteko proiektu parte-hartzailea da, herritarren, elkarten, herri administrazioen eta

Arartekoaren lankidetzarekin egindakoa.

Etengabe eraikitzeko proiektua da.



ONDOKOAN DATZA: mapa interaktibo batean tokien, eraikinen eta intereseko puntuen

IRISGARRITASUNARI buruzko informazioa jartzen da eta herritarrekin OSATUKO, EGIAZTATUKO da eta beste aukera batzuk proposatuko dira.



Internet bidez IKUS daiteke <http://mapak.ararteko.net> orri publikoan.



Informazioa mapan ikus daiteke puntu edo toki mota kokatzeko ikono baten bidez, eta beste ikono batzuen bidez edo testu bidez HORREN IRISGARRITASUN MAILA adieraziko da.

Tokiak identifikatzeko ikonoak, aniztasun funtzional motak adierazteko ikonoak, irisgarritasun mailak adierazteko ikonoak, laguntzaileak, laguntzeko moduak eta INFORMAZIO GEHIAGO

[www.Ararateko.com](http://www.Ararateko.com) / Mapas colaborativos web orrian.

## 2012an, FEVAPAS ONDOKOEEKIN...

**EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA / OSAKIDETZA- OSASUNA / LAN ETA GIZARTE GAIAK / ARARTEKOA ONDOKORAKO:**

- ◇ Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari arreta egiteko Plan Estrategikoa aurkezteko (2012-2016) 2012-2013 ikasturtean ikasle gorren jarraipena egiteko
- ◇ **Haurren Gortasuna Goiz Detektatzeko Programaren (HGGDP)** eta honekin lotura duten beste batzuen jarraipena egiteko
- ◇ Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Karteraren Dekretuaren zirriborroa aurkezteko - Ongizatearen Euskadiko eredu berria. Berrikuntza soziosanitarioa - Boluntarioen Estatuko Kongresua aurkeztea -2012 Familia Programa berrikustea eta horren jarraipena egitea
- ◇ Osasuna, Osakidetza eta Irigarritasuna gaien jarraipena egitea- Arartekoren Mapak aurkeztea (Toki eta puntu irigarrien mapa)

**EDEKA:** Fevapas elkarteak jarraitzen du Edekan (Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkariei Euskal Batzordea) lan egiten Desgaitasunaren inguruko beste Euskal Federazio batzuekin batera. Batzorde Exekutiboan eta Batzordeetan dago.

## FEVAPAS ONDOKOETAN.....

Krisialdian Gizarte Eskubideak izeneko jardunaldia- Mugarik gabeko Aretoa jardunaldiak- Berrikuntza Soziosanitarioari buruzko jardunaldiak- Familia Politiken inguruko jarduerak- XV. Boluntarioen Estatuko Kongresua - 2012ko Elkartean Jardunaldia- Aniztasun Funtzionaleko Emakumeek jasaten duten Genero-indarkeriaren inguruko jardunaldia.



### FEVAPASEk parte hartu du 2012ko Pertsona Gorren Nazioarteko Egunean

2012ko irailaren 20an, Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna dela-eta,

Tolosako prentsaurrekoan parte hartu zuen Fevapasek, Gainditzen eta

Euskal Gorrak elkarteetako kideekin batera.



Irailaren 29an jardunaldira joan eta antolatutako jarduera guztietan parte hartu zuen.



**FEVAPASEN**

**IZENEAN**

**EGUBERRI  
ON**

**LAGUNTZAILEAK**



**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza  
Familia eta Komunitatea Politikarako  
Zuzendaritza